

**EUSKO IKASKUNTZA-LABORAL KUTXA SARIA**  
**PREMIO EUSKO IKASKUNTZA-LABORAL KUTXA**

2014-11-12 Donostia 12-11-2014

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Autonomi Erkidegoko herri agintari eta herri ordezkariok, Foru Erkidegoko agintari eta ordezkariok, Eusko Ikaskuntza eta Laboral Kutxako presidente eta baita ordezkariok, Unibertsitateko ordezkariok, epaimahaikideok, jaun andreok, arratsalde on denoi.

Ez da batere lan erraza esandakoak esan eta gero, entzundakoak entzun eta gero, ezer berririk esatea, are zailagoa logikarik aurkitzea nik holako hitzaldi bat eman beharra izanari, baina tira.

Zorionak Mariasun Landa eta Jean-Baptiste Orpustan, merezimendu osoz jaso duzuen Sari honengatik. Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Sariak hogei edizio betetzen ditu, aipatu egin den bezela. Bere xedea da Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien alorrean, curriculum nabarmeneko jardunean ari diren pertsonak saritzea. Mariasun Landa beraz, Zorionak!

Esandako hiru ideiak azpimarratuko ditut:

Bat. Epaimahaiak zure lanaren ikuspegi kritiko eta berritzailea nabarmendu du. Epaimahaiaren ustez, eta aurkezpenean esan bezela ere, “xumetasunetik aldaketa sozialaren alde egin duen idazlea” zara eta, horrela, euskal kultura zentzu zabalenean bultzatu duzu.

Bi. Euskal Herrian zein atzerrian duzun proiektzioa. Emakumezkoarekin batera, Haur eta Gazte literaturan Estatuan ez ezik, Europan oihartzunik handiena duen idazlea zara. Gure hizkuntza eta literatura Europako plazetara jalgi duzulako ere eskerrak zor dizkizugu.

Hiru. Euskara etxetik ekarri gabe, euskal literaturan erreferente bihurtu zara. Zentzu horretan ere eredugarri izanik, Euskara guztion etxea baita.

Aipatutako atalak azpimarratzeaz gain, nire partetik esker ona ere bai: zinez diot, herri honetako gurasook asko zor dizugula, Mariasun. Gure hurrei ohe buruan Mariasunen liburuak irakurri dizkiegun gurasook badakigu nolakoa den Mariasun. Bere obran islatzen dena, egiazkotasuna, gardentasuna eta zuzentasuna baitira. Euskarazko haur eta gazte literatura nazioarteko mailara

eraman duzulako, eta esandako guzti horiengatik, Mariasun, zorionak eta eskerrik asko bihotzez.

Jean-Baptiste Orpustan zorionak! Xales Videgain eskerrik asko! Gaurko bi sarituen ibilbidearen bidegurutzean Marcel Proust dugu zain.

Jean Baptistek itzulitako bere obran esaten baitu Mariasun Landak iragarri digun honako egia: “gure haurtzaroan bizi gabe utzi ditugulakoan bizitako egun beteenak izan dira gure liburu maiteenarekin bizitako egunak.”

Orpustanen kasuan, “itzulpen literarioko alorretan egindako lanagatik ez ezik, onomastika, euskal literatura eta Iparraldean euskal kulturaren aldeko ibilbide “koherente eta konprometitua” izan du Epaimahaiak gogoan.

Saritua, hemen ez dugu, baina esan den moduan, euskal lexikologian eta literaturan espezialista nagusienetakoa da.

Gaur, 1955ean Jean Baptistek egindako hautua nabarmendu nahi dut. Balio handikoa baita Bordelen, Frantziako Unibertsitatean, berak hartutako erabakia, Iparraldeko toponimiari buruzko ikerketa egitea hain zuzen. Iparraldean euskarak eta euskal kulturak ikerketa erakundeei eta Jean Baptiste Orpustani zor diona aitortzea baita Sari honen azken zioa.

Este Premio cumple veinte ediciones reconociendo la trayectoria de personas comprometidas con las Humanidades, la Cultura, el Arte y las Ciencias Sociales.

Mariasun Landa y Jean-Baptiste Orpustan reciben este reconocimiento por su “intención y conocimiento” al servicio de la sociedad vasca.

Este es un Premio “opera omnia”, se premian dos grandes obras fruto de trayectorias vitales al servicio de la cultura de nuestro Pueblo.

Hoy vivimos momentos de mayor exigencia democrática, transparencia, participación y rendición de cuentas públicas, pero curiosamente es necesaria una mayor cultura y pedagogía histórico-político-democrático. No se entiende por ejemplo, la negación del Gobierno español a que el Pueblo catalán o el vasco se puedan pronunciar en relación a su futuro político.

Y aprovecho este marco institucional universitario para demandar un paso adelante en la cultura democrática, para abrir la puerta al conocimiento y también al análisis histórico, al diálogo y la negociación. No vivimos tiempos de

negación, vivimos tiempos de libre expresión de la ciudadanía. Tiempos en los que la sociedad demanda ser escuchada y poder pronunciarse. Esta es la auténtica cultura democrática. Son tiempos de propuestas, de negociación, de acuerdos. Es el tiempo de los acuerdos y no es el tiempo de las imposiciones.

Beraz, Espainiako Gobernuari ukazioarekin bukatzea eta ateak irekitzea eskatzen diogu. Elkarriketaren ateak irekitzea, Catalunyan eta Euskadin ere etorkizun politiko berri bat eraiki ahal izateko. Herritarrek parte hartu nahi dute eta agintariori dagokigu beraien nahia entzutea eta aintzat hartzea. Hori da gure asmoa. Hori da gaur egun benetako kultura demokratikoa.

Asmo berriak jakitez aurrera eramanez, Eusko Ikaskuntza ari da bere lana betetzen. Komunitate kultural eta zientifikoaren topagunea da. Euskal proiektu kultural partekatuak aurrera egin dezan.

Mariasunek eta Jean-Baptistek ibilbide bikaina erakutsi dute “asmoz eta jakitez”. Zuen obra gure Herriaren maitasunean oinarritua dago, kulturaren zerbitzura jarrita.

“Opera omnia” saria dugu hau; Saritutako pertsonen obra osoak Euskal Herriko garapen kulturalean lagundu baitu.

Biak dira, biak zarete euskal kulturen pertsona seinalatuak, biak euskararekin eta euskal literaturarekin konpromiso sendoa modu bikainean eskaintzeko gai izan zaretenak, izan direnak. Biak aitortzen eta zoriontzen ditugu gaurkoan.

Mariasun eta Jean-Baptiste zorionak, jaun andreok mila esker guztioi.